PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES

Espedientea / Expediente:
ZIUR2026-018

Enpresentzako zibersegurtasuneko edukiak sortzeko zerbitzuaren kontratazioa

Contratación del servicio servicio de generación de contenidos de ciberseguridad dirigidos a empresas

1. ZERBITZUAREN XEDEA ETA IRISMENA

Kontratu honen helburua da enpresentzako zibersegurtasuneko edukiak sortzeko zerbitzua ematea. Eduki hauek sortu beharko dira:

- Zibersegurtasun industrialaren esparruko mehatxu hala estrategiko nola taktikoen testuinguruaren azterketarekin lotutako txostenak. Txostenek alderdi hauek jaso behar dituzte azterketa-aldirako: mehatxu berriak, ahultasunak, eraso-teknika berriak, exploit direlakoak eta abar, arreta industria-eremuan (ICS) jarrita.
- Zibersegurtasun industrialeko joeren, teknologikoaren ikuskapenaren, merkatuan dauden irtenbideen eta haien jarduera-esparruaren eta abarren azterketarekin lotutako txostenak, zibersegurtasunaren arloan (ICS).

1. OBJETO Y ALCANCE DEL SERVICIO

El objeto del presente contrato es la prestación del servicio de generación de contenidos de ciberseguridad dirigidos a las empresas. Los contenidos a generar serían los siguientes:

- Informes relacionados con el estudio de contexto de amenazas, tanto estratégicas como tácticas, en el ámbito de la ciberseguridad industrial. Los informes deben contemplar para el periodo de estudio: nuevas amenazas, vulnerabilidades, nuevas técnicas de ataques, exploits, etc. centrados en el ámbito industrial (ICS).

- Informes relacionados con el estudio de tendencias en ciberseguridad industrial, vigilancia tecnológica, soluciones disponibles en el mercado y su ámbito de actuación, etc., en el ámbito de la ciberseguridad Industrial (ICS).

2. PRESTAZIOAREN HELBURUA

Zerbitzu honetan, aldez aurretik hornitzailearen eta ZIUR fundazioaren artean adostutako gaikako ardatzei buruzko edukiak landuko dira. Txostenetan, gaiak modu didaktikoan landuko dira, proiektu honen lau helburuak lortzen laguntzeko: sentsibilizazioa, zerbitzu fidagarriagoak, erresilientzia eta jardunbide egokiak.

Proiektua 2 lotetan dago banatuta, landu beharreko gaien arabera:

1. 1. sorta: industria-sektoreko zibersegurtasunaren arloko mehatxuen inteligentzia-txostenak egitea.

2. OBJETIVO DE LA PRESTACIÓN

Este servicio consistirá en elaborar contenidos relativos a los ejes temáticos acordados previamente entre el proveedor y ZIUR. Los informes tratarán las materias de forma didáctica contribuyendo a conseguir los cuatro objetivos de este proyecto: sensibilización, servicios más confiables, resiliencia y buenas prácticas.

El proyecto se divide en 2 lotes, divido por las temáticas a tratar:

1. Lote 1: elaboración de informes de inteligencia de amenazas en materia de ciberseguridad en el sector industrial.

2. 2. sorta: industria-sektoreko zibersegurtasunaren arloko joerei eta jardunbide egokiei buruzko txostenak egitea.

Bi sortetarako, lizitatzaileak txostenetan landu beharreko gaiak aurkeztu beharko ditu, eta behin betiko gaia ZIUR fundazioarekin batera adostuko du, zerbitzua adjudikatu ondoren.

Lote bakoitzeko, gutxienez, urtean 4 txosten argitaratzea aurreikusten da; hau da, lote bakoitzeko 8 txosten, kontratua gauzatzeko epe osoan.

3. ZERBITZUA GAUZATZEKO BALDINTZAK

3.1 Sorta bakoitzaren ezaugarriak

Prestazioa ZIUR Fundazioaren Zuzendaritzak zerbitzurako eskatzen dituen egokitasun-irizpideen arabera egingo da, haren premien arabera eta gaitasun-, publizitate- eta gardentasun-jarraibideak betez.

Prestazioa metodologia honen arabera egin beharko da:

1. <u>Sorta:</u>

Enpresa kontratistak bi geruzako edo mailako monitorizazio bat egingo du, eta ZIUR-en eskura jarriko ditu mehatxuen inguruko inteligentzia-unitatea eta zibersegurtasun industrialeko adituak. Proposamenean, bere inteligentzia-unitateak erabilitako informazio-iturriak eta teknologiak zehaztuko ditu.

Aurreikusitako helburuak zerbitzua ematen den urtean lortuko dira, eta txostenean eduki hauek sartuko dira, besteak beste:

- ICS inguruneetako mehatxu espezifikoak.
- Larritasun bereziko *malware* kanpainak.
- *Phishing* kanpaina bereziki garrantzitsuak.

2. Lote 2: elaboración de informes de tendencias y buenas prácticas en materia de ciberseguridad en el sector industrial.

Para ambos lotes el licitante deberá proporcionar las temáticas a tratar en los diferentes informes, acordándose la temática definitiva de forma conjunta junto con ZIUR una vez adjudicado el servicio.

Se prevé publicar, como mínimo, por cada lote 4 informes a lo largo del año, es decir, 8 informes por lote durante todo el plazo de ejecución del contrato.

3. CONDICIONES DE EJECUCIÓN DEL SERVICIO

3.1 Características de cada lote

La prestación se llevará a cabo de conformidad a los criterios de idoneidad que la Dirección de ZIUR Fundazioa exija para el servicio, de conformidad con las necesidades de este y siguiendo las directrices de capacidad, publicidad y transparencia.

La prestación se deberá realizar de conformidad con la siguiente metodología:

<u>Lote 1</u>:

La empresa contratista realizará una monitorización en dos capas o niveles y pondrá a disposición de ZIUR su unidad de inteligencia en amenazas y expertos en ciberseguridad industrial, especificando en la propuesta las fuentes de información y tecnologías utilizadas por parte de su unidad de inteligencia.

Los objetivos previstos se alcanzarán a lo largo del año del servicio, incluyendo contenidos en el informe como:

- Amenazas específicas entornos ICS.
- Campañas de *malware* de particular gravedad.

- Nolabaiteko garrantzia duten hacktibismo kanpainak.

- Zerbitzuei, tresnei etab-i eragiten dieten beste mehatxu edo arrisku batzuk, zeinak industriarentzat arriskutsuak izan baitaitezke.

Ildo horretan, mehatxuen inteligentzia-unitatearen eta zibersegurtasun industrialeko taldearen gaitasunak konbinatuko dituen talde-eredu bat ezarriko da.

- Campañas de *phishing* especialmente relevantes.

- Campañas de hacktivismo de cierta relevancia.

- Otras amenazas o riesgos que afecten a servicios, herramientas, etc., que pudieran desembocar en riesgos para la industria.

En este sentido, se establecerá un modelo de equipo que combine las capacidades de su unidad de inteligencia de amenazas y de su equipo de ciberseguridad industrial.

2. Sorta:

Txostenen edukiak zibersegurtasunarekin lotutako gaiak barne hartu beharko ditu, hala Operational Technology-ren (OT) eremuan nola Information Technology-ren (IT) eremuan, zibersegurtasunak Gipuzkoako lurraldeko enpresetan duen garrantziaren ikuspegi integral bat emateko.

Txostenetako gaiak aurkezteko ordena bat planteatze aldera, enpresa adjudikaziodunak kontratuaren iraunaldian garatu beharreko gaien aurkibide bat proposatu beharko du bere proposamenean.

Lote 2:

El contenido de los informes deberá incluir temáticas relacionadas con la ciberseguridad tanto en el entorno Operational Technology (OT) como en el Information Technology (IT), para proporcionar una perspectiva integral de lo que supone la ciberseguridad para las empresas del territorio de Gipuzkoa.

De cara a plantear un orden de presentación de temáticas de los informes, la empresa adjudicataria deberá proponer en su propuesta un índice de materias a desarrollar a lo largo de la duración del contrato.

3.2 Txostenen ezaugarriak

Hauek izango dira txostenen ezaugarriak:

- Hizkuntza ez oso teknikoan idatziko dira, halako moldez non irakurleak ez baititu gaiari buruzko ezagutza aurreratu edo adituak izan beharko guztia ulertzeko.

- Gehienez ere hamar orrialdeko luzera izango dute, txostena erakargarria izan dadin, ez edukiagatik soilik, baita irakurtzeko behar den denboragatik ere.

3.2. Características de los informes

Las características de los informes serán las siguientes:

- Se redactarán en un lenguaje no excesivamente técnico, de forma que la persona lectora no requiera conocimientos avanzados o expertos en la materia para comprender la totalidad del mismo.

- Tendrán una longitud no superior a diez páginas, de forma que el informe resulte atractivo no sólo por su contenido sino por el tiempo que requiere su lectura.

- Erakunde kontratistak maketatuko du, ZIUR-ek emandako dokumentu-txantiloi bat oinarri hartuta.

- Txostenaren edukia guztiz originala izango da, baina hirugarrenen iturrietarako berariazko erreferentziak (irudiak, iturri bibliografikoak...) jaso ditzake.

- Industria-inguruneko arazoak konpontzen dituzten irtenbide teknologikoak aztertu ahal izango dira, komertzialak izan edo ez.

- Gipuzkoako enpresa-ingurunearen ezaugarri bereizgarriak direla-eta, arreta berezia jarriko da txostenek lurraldeko berezko sektore industrialen (ETEak, makina-erreminta sektorea) ohiko inguruabarrak ondo jaso ditzaten.

- Será maquetado por la entidad contratista tomando como base una plantilla de documento proporcionada por ZIUR.

- El contenido del informe será absolutamente original, aunque puede incluir o hacer referencias expresas (imágenes, fuentes bibliográficas…) a fuentes de terceros.

- En el caso de soluciones tecnológicas que resuelvan problemáticas del entorno industrial, se podrá procede con el análisis de las mismas, sean de tipo comercial o no.

- Dada las características diferenciales del entorno empresarial industrial de Gipuzkoa, se realizará especial énfasis en que los informes reflejen con intensidad las circunstancias habituales de los sectores industriales característicos del territorio (PYMES, sector máquina-herramienta…).

4. LANAK IKUSKATZEA ETA KONTROLATZEA

ZIUR-en eta zerbitzuan parte hartuko duen taldearen arteko elkarreraginak sinplifikatzeko, zerbitzuaren arduraduna izango da zerbitzuaren arduradunen eta ZIUR-en eta kontratistaren arteko harremanetarako pertsona bakarra.

Horien eginkizunak izango dira, besteak beste:

- Zerbitzuen bilakaeraren jarraipena egitea eta txostenak behar bezala entregatzen direla zaintzea (Q&A).
- ZIUR-ek bidal ditzakeen eskabideak jakinaraztea eta eskabideoi erantzutea.
- Kasu bakoitzean behar diren taldeetako funtsezko kideak inplikatzea.
- ZIUR-ekin egingo diren aldizkako bileretara joatea (ikus metodologia).
- Zerbitzuko entregagaiak berrikustea (ikus zerbitzu-plana).

Txostenak hiru hilean behin entregatuko dira; mehatxuei buruzko txostena entregatu aurretik, bilera bat egingo da urrunetik, txostena aurkezteko. Era berean, bilera

4. GESTION DEL SERVICIO

Con el ánimo de simplificar las interacciones entre ZIUR y el equipo que estará involucrado en el servicio, se propone una única figura, de Responsable del servicio, como punto de contacto entre el/los responsables del servicio por parte de ZIUR y el contratista.

Sus funciones serán, entre otras:

- Seguimiento del curso de los servicios y velar por la correcta entrega de informes (figura Q&A).
- Reporte y atención a las peticiones que pudieran llegar por parte de ZIUR.
- Involucrar a los miembros clave de los equipos que se requieran en cada caso.
- Asistir a las reuniones periódicas que se mantendrán con ZIUR (ver metodología).
- Revisión de los entregables de servicio (ver plan de servicio).

Los informes se entregarán trimestralmente; previamente a la entrega del informe sobre amenazas se llevará a cabo una reunión en remoto para la presentación

horretan, jardueren eta proiektuaren plangintzaren jarraipena egingo da. Lehenengo bilera, uneko egoeraren informazioa biltzekoa, eta azkenekoa, azken aurkezpena egin eta zerbitzua entregatzekoa, aurrez aurrekoak izango dira.

Gainera, arreta berezia jarriko da kontratu honen xede den prestazioaren ondoriozko datu pertsonalen tratamenduari buruz indarrean dagoen legeria betetzeko.

Zehazki, plangintzari buruz:

- Txosten bat idazteko prozesu osoak 8 aste iraungo du, gutxi gorabehera.
- Egunetan ezarritako epeak egun baliodunez ari direla ulertuko da (Gipuzkoako lan-egutegiaren arabera).
- Txosten bat egitearen iraupen osoa aldatu egin daiteke ezarritako epearen barruan egon daitezkeen jaiegunen arabera.
- Identifikatutako zeregin bakoitzerako ezarritako denborak proposamen hutsa dira, eta ZIUR-ek baliozkotu beharko ditu proiektua abiarazteko fasean.
- Txosten bakoitza argitaratzeko data zehatzak proiektua abiarazteko fasean zehaztuko dira, eta aurreko zereginen plangintza (txosten bakoitzerako) horien arabera egokituko da.

Horretarako, metodologia hau erabiliko da, erakunde kontratistak eskaintzan zehaztutako edukiarekin:

1. Gaien proposamenak aurkeztea.
2. Txostenaren behin betiko gaiak baliozkotzea.
3. Txostenaren zirriborroa idaztea.
4. Aldaketak eta zuzenketak proposatzea.
5. Txostena baliozkotzea.
6. Euskarara itzultzea.

del mismo. Asimismo, en esta reunión se hará seguimiento de las actividades y planificación del proyecto. La primera reunión, para el levantamiento de la información, y la última, con la presentación final y entrega del servicio, serán presenciales.

Además, se prestará especial atención al cumplimiento de la legislación vigente relativa al tratamiento de los datos personales resultantes de la prestación del suministro objeto del presente contrato.

Concretamente sobre la planificación:

- El proceso completo de redacción de un informe tendrá una duración estimada de 8 semanas de trabajo.
- Los plazos establecidos por días se entenderán referidos a días hábiles (de acuerdo con el calendario laboral de Gipuzkoa).
- La duración total de generación de un informe puede variar en función de los días festivos que pudieran encontrarse dentro del periodo de tiempo establecido.
- Los tiempos establecidos para cada una de las tareas identificadas son una propuesta, que deberá ser validada por ZIUR durante la fase de lanzamiento del proyecto.
- Las fechas concretas de publicación de cada uno de los informes se detallarán durante la fase de lanzamiento de proyecto, y la planificación de las tareas anteriores (para cada informe) se ajustará en función de éstas.

Para ello se empleará la siguiente metodología con el contenido definido en la oferta por la entidad contratista:

1. Presentación de propuestas temáticas.
2. Validación de temática definitiva del informe.
3. Redacción de borrador del informe.
4. Propuesta de modificaciones y correcciones.
5. Validación del informe.
6. Traducción a euskera.

7. Behin betiko txostenak (bi hizkuntzatan) aurkeztea.

7. Entrega de informes (bilingüe) definitivos.

5. LANAK IKUSKATZEA ETA KONTROLATZEA

Kontratistak ZIUR Fundazioari lanen garapenari dagozkion ikuskapen eta kontrol funtzioak betetzea erraztu beharko du, jasotzen dituen ohar eta gomendioak zorrotz betez.

Era berean, kontratua behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eman beharko ditu, ordainketa osagarrirako eskubiderik gabe, hala nola lan eta informazio bileretara joatea.

5. INSPECCIÓN Y CONTROL DE LOS TRABAJOS

La contratista deberá facilitar el ejercicio de las funciones de inspección y control que sobre el desarrollo de los trabajos corresponden a ZIUR Fundazioa, dando estricto cumplimiento a las observaciones y recomendaciones que reciba.

Del mismo modo, deberá prestar, sin derecho a pago suplementario, los servicios que se estimen necesarios para el correcto desarrollo y cumplimiento del contrato, tales como la asistencia a reuniones de trabajo e informativas.

6. KONFIDENTZIALTASUNA KONTRATUA GAUZATZEAN

Kontratu honen esparruan egindako lan guztiak isilpekoak izango dira, eta enpresa adjudikaziodunak ezin izango du beretzat erabili kontratatutako lanei buruzko daturik edo informaziorik, ez eta ZIUR Fundazioak emandako dokumentaziorik ere, bere baimenik gabe.

6. CONFIDENCIALIDAD EN LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO

Todos los trabajos realizados en el ámbito del presente contrato tendrán carácter confidencial, no pudiendo la empresa adjudicataria utilizar para sí ni proporcionar a terceros, datos o información alguna de los trabajos contratados, ni de la documentación facilitada por ZIUR Fundazioa sin su consentimiento.

Donostian, dokumentu hau elektronikoki sinatzen den egunean.

En Donostia-San Sebastián, a la fecha de la firma electrónica del presente documento.

María Penilla Azcuenaga
Ziur Fundazioko zuzendari nagusia /
Directora general de Ziur Fundazioa

Firmado por PENILLA AZCUENAGA, MARIA (FIRMA) el día 08/07/2026 con un certificado emitido por AC DNIE 004